



IKASTURTE HASIERAKO ESLEIPENA

2019-2020

Irakaskuntza-kidego hauetan dauden karrerako funtzionarioak:

- .Bigarren Hezkuntzako Katedradunak**
- .Bigarren Hezkuntzako Irakasleak**
- .Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoak**
- .Hizkuntza Eskola Ofizialetako Katedradunak**
- .Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleak**
- .Musika eta Arte Eszenikoko Katedradunak**
- .Musika eta Arte Eszenikoko Irakasleak**
- .Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradunak**
- .Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleak**
- .Arte Plastikoetako eta Diseinuko Tailerreko Maisu-maistrak**

Prozesuaren gida

Vitoria-Gasteiz, 2019-2020



I. ARAUDIA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak **2012ko ekainaren 6an emandako Aginduak (EHAA 2012-06-19)**, hau lehenengo aldiz aldatzen duen **2014ko ekainaren 26ko Aginduak (EHAA 2014-07-08)**, eta hau bigarren aldiz aldatzen duen **2016ko ekainaren 20ko Aginduak (EHAA 2016-06-20)** arautzen dute ikasturte hasierako esleipen-prozesua, jarraian agertzen diren kidegoetan dauden karrerako funtzionarioei dagokienez.

- .Bigarren Hezkuntzako Katedradunak
- .Bigarren Hezkuntzako Irakasleak
- .Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoak
- .Hizkuntza Eskola Ofizialetako Katedradunak
- .Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleak
- .Musika eta Arte Eszenikoko Katedradunak
- .Musika eta Arte Eszenikoko Irakasleak
- .Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradunak
- .Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleak
- .Arte Plastikoetako eta Diseinuko Tailerreko Maisu Maistrak

II. NORK HARTU BEHAR DUEN PARTE

Prozesu honetan hartuko dute parte Hezkuntza Sailaren mendeko **karrerako irakasle funtzionarioek**, goian aipatutako kidegoetan daudenek, **inguruabar hauetakoren bat gertatzen bada:**

- a) **Behin betiko destinorik gabe** zerbitzua ematen egotea, **edo behin betiko destinoa** edozein arrazoiengatik **ez betetzea**.
- b) **Zerbitzu aktibora itzultzea eskatzea**, 2019-2020 ikasturte-hasieratik hasita.

III. ESLEIPEN-TALDEAK

Parte-hartzaileak esleipen-talde hauetan bilduko dira:

- a) Haien **lanpostua eraldatzeagatik** behin betiko destinoa hizkuntza-eskakizuna betea duten lanpostuetan izan eta egiaztatu ez duten pertsonak.
- b) Esleipen-prozesua burutzen den ikasturterako **nahikoa ordu ez duen** behin betiko destinoa duten lanpostua duten pertsonak.
- c) Espresuki **lekualdatutzat** jo diren pertsonak.
- d) Behin betiko destinoa espresuki **kendu zaien** pertsonak.
- e) **Epaia betetzeagatik** behin betiko destinoa galdu duten pertsonak.
- f) Lanpostu huts bat betetzeko **zerbitzu-eginkizun bat** eman zaien pertsonak.
- g) **Destinoaren zain dauden**, edo behin-behineko destinoa duten beste pertsona batzuk.



IV. ZELAN HARTU BEHAR DEN PARTE

Esleipen-talde baten egoteko baldintzak betetzen dituzten pertsonak **derrigorrez** hartu beharko dute parte.

Hala ere, **lanpostu zehatzak zerbitzu-eginkizunez betetzeko** deialdietan lanpostua lortu duten pertsonak ez dute parte hartuko.

V. ESLEIPEN-ESPARRUAK

Lanpostuak esparru hauetan esleituko dira:

- a) **erreferentziako ikastetxea**, talde guztientzat, arrazoiren bat tarteko erreferentziako ikastetxerik ez duten horientzat izan ezik.
- b) **herria**, g) taldeko pertsonentzat, kanpoko lanpostuetan atxikita egoteagatik behin betiko destinoa galdu zutenak.
- c) **eskola-barrutia**, a), b) c) eta d) taldeentzat.
- d) **lurralde historikoa**, talde guztientzat.

Lanpostuak hautatzeko lehenengo esparrua erreferentziako-ikastetxea da. Horren atzetik, gero eta esparru handiagoetara zabaltzen da hautapena (herria, barrutia eta lurraldea, parte-hartzaileen arabera).

Esparruren batean lanpostua eskuratu duten pertsonak ez dute hurrengo esparruan edo esparruetan parte hartuko. Aitzitik, esparru batean lanpostua lortzen ez dutenek gainontzeko esparruetan parte hartzen jarraituko dute.

Horregatik, **esleipen-esparru baten baino gehiagoetan parte hartzeko eskubidea duten pertsonak dagokien esparru guztietako eskabide-atalak bete beharko dituzte**. Lanpostua lortzen dutenean, parte hartu ez duten esparruei dagokienez egin ahal izan diren eskabideak ez dira kontuan hartuko, baina esparru batean ez badute lortzen, hurrengo esparru(et)an ere eskabideetan adierazi dituen lehentasunak hartuko dira kontuan.

VI ZELAN ZEHAZTU ERREFERENTZIAKO IKASTETXEA ETA GAINONTZKO ESLEIPEN-ESPARRUAK

Parte-hartzaile bakoitzaren **erreferentziako ikastetxea** 2019ko otsailaren lehen lanegunetik ekainaren azken lanegunera zerbitzua eman duen ikastetxea da.

Hala ere, **berariazko kasu** hauek hartu behar dira kontuan:

- a), b) eta c) **taldeak**: esandakoaren arabera lortu den erreferentziako ikastetxea ez bada behin betiko destinoa duten ikastetxea edo lekualdatuaren egoera lortu zuten ikastetxea, pertsona hauek eskatu ahal izango dute erreferentziako ikastetxetzat behin betiko destinoko ikastetxea edo izaera hori lortu zutenekoa hartzea. Eskabide elektronikoa bertan eskatu beharko dute hori.

Ikastetxeak aldatzea: esandakoaren arabera lortu den erreferentziako ikastetxea beste batekin bat egin bada, fusioaren ondoriozko ikastetxe berria izango da erreferentziako



ikastetxea. Zatitu egin bada, ondoriozko ikastetxe guztietan gordeko dute erreferentzia; beraz, eskabide elektronikoan bertan ikastetxe bat aukeratu beharko dute.

Behin betiko lanposturik gabe eta egoera berezietan dauden pertsonak: IRALE programa edo liberazio sindikala amaituta sistemara bueltatzen direnek, edo zerbitzu berezietatik lanera itzultzen diren pertsonak egoera horietara joan zireneko ikastetxean izango dute erreferentzia. Gauza bera adin txikiko seme edo alaba edo ahaideak zaintzeagatik eszedentziatik lanera itzultzen direnek, beti ere behin betiko destinoa gordeta izateko epea ez bada gainditu.

Zerbitzu eginkizunetan daudenak: 2018-2019 ikasturtean zerbitzu eginkizuna izan ez, baina 2019-2020 ikasturtean zerbitzu-eginkizuna izango duten pertsonak bakarrik izango dute erreferentziako ikastetxea behin betiko destinoa denean. 2018-2019 ikasturtean zerbitzu eginkizunean egon direnek bakarrik izango dute erreferentziako ikastetxea behin betiko destinoa denean edo 2019-2020 ikasturterako zerbitzu eginkizuna ere badaukate.

Gainontzeko esleipen-esparruak erreferentziako ikastetxetik datoz. Beraz, parte hartzen duen pertsona bakoitzaren **herria, eskola-barrutia eta lurralde historikoa** erreferentziako ikastetxea dagoenekoak izango dira.

Erreferentziako ikastetxerik ez duten pertsonak lurralde historikoan hartuko dute parte. Lurralde historikoa honela zehaztuko da:

Zerbitzua ematera itzultzen diren pertsonak, zerbitzua emateari utzi ziotenean zeuden lurralde historikoa.

Itzultzen diren pertsonak, itzultzea emateko ebazpenean ageri den lurralde historikoa.

Zerbitzu eginkizuna lortzen dutenak edo egoera horri amaiera eman diotenak, 2018-2019 ikasturtean zerbitzua bete duten lurralde historikoa.

VII. UKO EGITEAK ETA ALDAKETAK ESLEIPEN-ESPARRUETAN

A.- Esleipen-esparruei uko egiteko

Erreferentziako ikastetxean hautatzeari uko egin ahal izango diote gutxienez **azken bi ikasturteak** ikastetxe horretan eman dituztenek.

Herrian eta barrutian hautatzeari uko egitea librea da esparru horietan esleitzeko eskubidea dutenentzako.

Uko egiteak **parte hartzeko eskabide elektronikoan bertan** markatu beharko dituzte interesdunek (ez, orain arte moduan, aurretik aurkeztu behar zirela).

Horretarako, dagokien laukiak aktibatu beharko dituzte, **espresuki** adierazteko. Kontuan izan esparru batean lanposturik ez eskatzea ez dela uko egitetzat hartuko, eta administrazioak lanpostua ofizioz esleitu ahal izango luke.

Uko egite hiru hauek ez daude bata besteari lotuta; beraz, bata zein bestea zein hiruek markatu ahal dira.

Esleipen-esparru bati uko egiten dionak dagokion hurrengo esparruan parte hartuko du.



B.- Lurralde historikoa aldatzeko

Edozein parte-hartzailek eska dezake lanpostuak haien **erreferentziako ikastetxearena ez den lurralde historikoaren esparruan hautatzea**, erreferentziako ikastetxean gutxienez **azken bi ikasturteak** eman badituzte (ez da derrigorrezkoa azken bi ikasturteak, gutxienez, aipatu erreferentziako ikastetxean eman izana).

Aukera hau **idatziz eta aurretik** egin beharko da, eta gauzatu ahal izateko, administrazioak **onartu beharko du**, joan nahi duen lurraldean zenbat lanpostu eta pertsona dauden kontuan hartuta.

Pertsona batek lurralde historikoa aldatzen duenean irizpide orokorren arabera zegozkion erreferentziako ikastetxean, herrian, eskola-barrutian eta lurralde historikoan esleipenari uko egiten du.

VIII. ZEIN LANPOSTU ESLEITUKO DIREN

Prozesu honetan **baldintza hauek guztiak** betetzen dituzten lanpostuak esleituko dira:

- .**irakasle**-lanpostuak izatea.
- .Hezkuntza Sailaren mendeko unibertsitateaz kanpoko **ikastetxe publikoetan** egotea.
- .irakaskuntza-kidegoetako **espezialitatekoak** izatea.
- .**hutsik egotea** edo titularrek edo eskubide onena dutenek **beterik ez egotea**.
- .egoera horrek **ikasturte osoa irauango duela** aurreikusten bada.
- .**esleitzeko unean existitzen direnak** eta esleitzeko lanpostuen zerrendan argitaratu direnak.

Horrela, titularrik ez duten lanpostuez gain, besteak beste, ezaugarri hauek dituzten lanpostu hauek esleituko dira: titularra zerbitzu eginkizunak edo zerbitzu bereziak ematen, liberazio sindikalean, urte sabatikoko baimenarekin, ikasturte osoan IRALEko liberazioan egotea, edo deialdi batean onartua izateagatik ikasturte osoan ez egotea.

Fase bakoitzean, aurreko fase(et)an bete ez diren lanpostuak esleituko dira.

Prozesuko lanpostuak hura **hasi aurretik jarriko dira jendaurrean**, haien ezaugarriak biltzen dituen zerrenda baten bidez. Argitara emango dira Hezkuntza Sailaren web-orrian, eta irakaslegunean.

Lanpostuen zenbait ezaugarriren arabera, era desberdinetan jokatuko dira eskabideetan edo era espezifikoko batez kalifikatuko dira. Hauek dira ezaugarriak eta ondorioak:

Lanaldi murriztuko lanpostuak

Prozesu honetan ez dira lanaldi murriztuko lanposturik esleituko. Hala ere, jardunaldia murrizteko eskubidea duenak geroago eskatu ahal izango du lanpostuaren jardunaldia murrizteko.

Lanpostu ibiltariak eta lanpostu bereziak

Ezaugarri horiek ez dauzkaten gainerako lanpostuak bezalaxe esleituko dira.



Eskatu ahal dira eskaera zehaztuetan eta kontuan hartuko dira bai eskaera generikoen garapenean, bai nahitaezko eskaerak sortzean, XI eta XII ataletan adierazitako irizpideen arabera.

Ezaugarri bereziko lanpostu gisa espresuki kalifikatutako lanpostuak

Lanpostu horiek bakarrik esleituko dira eskaera zehaztuetan eskatuak izan badira, hau da, lanpostuak argitaratutako zerrendan esleituta duen ordena-zenbakia adieraziz. Hortaz, ez dira sartuko ez eskaera generikoen garapenean, ez nahitaezko eskaerak sortzean (XI eta XII ataletan azaltzen dira garapen horiek).

Argitaratzeko zerrendetan "2" edo "3" markekin azalduko dira lanpostu hauek.

Ezaugarri bereziak dituzten lanpostu gisa espresuki kalifikatzen dira Berritzeguneetan, IBTetan eta Ospitaleko eta Etxeko Hezkuntza Arretarako eta Arreta Terapeutiko Hezigarrirako Lurralde Zentroetan kokatzen direnak.

Halaber, Espetxeetan eman beharrekoak eta errelebo-kontratu batetik sortutakoak, betiere lanpostuen zerrendan horrela jasota egonez gero.

Kalifikazio bera izango dute espezialitate bat ingelesez edo frantsesez ematea eskatzen duen lanpostuek (hirueletasuna), Langileak Kudeatzeko zuzendariak ikasturte hasierako esleipen-prozesura urtero deitzeko ematen duen ebazpenean agertzen ez diren espezialitateetako lanpostuek, edo ebazpen horretan jaso ez den tipologiako ikastetxeetako lanpostuek.

Azkenik, ezaugarri bereziko lanpostu gisa kalifikatuko dira beren osaketaren edo bestelako ezaugarrien ondorioz kalifikazio hori izatea gomendatzen dutenak.

IX. LANPOSTUAK LORTZEKO BETEKIZUNAK

A) Betekizun orokorrak

Lanpostu bat esleitzen denean, parte-hartzaileak **baldintza orokor hauek** bete beharko ditu:

- Esleipenaren zati honetan parte hartzen duten **kidegoetakoren batekoa izatea**. Kidego bitan edo gehiagotan daudenean bakarrik **zerbitzu aktiboan dauden** kidegoan hartuko dute parte.
- Lanpostuari dagokion **espezialitatearen titular izatea**.

Kontuan izan **espezialitate batzuetan espezialitate bat baino gehiagorako sarbidea** dagoela, eta batzuetan lanpostuak daudela **hezkuntza maila desberdinetan**. Eskatzeko kodeak, beraz, **desberdinak** dira.

Esleipen-eremuan pertsona batek ez badauka espezialitatez joan ahal duen lanposturik, parte hartzen duen kidegoko beste lanpostu batzuk eskuratu ahal izango ditu, titulu akademikoaren arabera. Titulu akademiko eta espezialitateen arteko korrespondentzia Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako irakasleak ordezkatzeko izangaiak kudeatzeko araudian orokorrean 1 kideetasunarekin ezarritakoa izango da.



2007tik aurrera deitutako hautaketa-prozesuetan karrerako funtzionario izendatu eta lekualdatze-lehiaketan behin betiko destinorik lortu ez duten pertsoneri, oposizioan gainditu zuten espezialitateko lanpostuak esleituko zaizkie soilik.

c) Derrigorrezko-data betea duen lanpostuak eskatutako **euskarazko hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea.**

2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten pertsonen 2. hizkuntza-eskakizuna duten derrigortasun-data beteko lanpostuak besterik ez dute eskuratuko. Hala ere, 1. hizkuntza-eskakizuneko lanpostuetara sartu ahal izango dute kasu hauetan:

a) Erreferentziako ikastetxean, eta a), b), c) eta d) taldeetakoentzat, eskola-barrutian ere, 2. hizkuntza-eskakizuna duten derrigortasun-data beteko lanposturik ez bada.

b) Lurralde historikoan, baldin aukera hori baliatzeak ez badu galarazten eskatutako hizkuntza-eskakizuna ez dutenek lanpostua eskuratzea.

B) Atzerriko hizkuntzan emateko lanpostuak

Ikasgai edo espezialitate bat atzerriko hizkuntzan ematea eskatzen duen lanpostu bat betetzeko, baldintza orokorrak betetzeaz gain, atzerriko hizkuntzan eskolak emateko ezarritako **espezialitate- edo titulazio-baldintzak** egiaztatu beharko dira.

C) Atzerriko hizkuntza batzuk emateko lanpostuak

Atzerriko bi hizkuntza ematea eskatzen duen lanpostu bat betetzeko, baldintza orokorrak betetzeaz gain, gutxienez hizkuntzen erreferentziako esparru komun europarraren **B-2 maila** gainditu izana egiaztatu beharko da, ordu **kopuru txikiena duen hizkuntzari dagokionez.**

D) Lanpostuaren beste betekizun batzuk

Lanpostuak beste betekizun batzuk eskatzen baditu, betekizun horiek betetzen dituela egiaztatua izan beharko luke esleipendunak.

X. ESKABIDEAK

A) Orokorrean

Prozesuan parte hartzeko irakaslegunean eskuragarri dagoen **eskabide elektronikoa** bete beharko da, <http://www.irakasle.eus> helbidetik sartuta. Aplikazioan sartzeko pertsona bakoitzak daukan erabiltzaile-gakoa erabili beharko da. Gakoa baliogabetu edo ahaztu egin duenak gakoak berreskuratzeko zerbitzuaz baliatu ahal izango du.

Irakaslegunean sartzeko Internet-konexioa daukan **edozein ordenagailu** erabili ahal da. Hala ere, Hezkuntza Sailak eskabideak sartzeko puntuak gaituko ditu, Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetan.



B) Eskabidea aurkezteko epea

Eskabidea betetzeko epea **2019ko abuztuaren 8ko 14:00etan ireki, eta 2019ko abuztuaren 9ko 14:00etan itxiko da.**

C) Eskabidea zelan bete

Eskabide **bakarra** izango da parte-hartzailearen esparru eta fase guztietarako. Hala ere, **esparru bakoitza eskabidearen atal desberdin batean** agertuko da (erreferentziako ikastetxea, herria, barrutia, lurralde historikoa, hurrenkera horretan).

Eskabidearen atal bakoitzean **eskaera-lerro** batzuk agertzen dira (15 lerro erreferentziako ikastetxerako; 30 lerro, eskola-bilgunerako, eta 300 lerro, lurralde historikorako). Ez da derrigorrezkoa guzti-guztiak betetzea.

Aurretik esanda moduan, **esleipen-esparru baten baino gehiagoetan** parte hartzeko eskubidea duten pertsonak **dagozkien esparru guztietako eskabide-atalak bete beharko dituzte**, nahiz eta lehenengo esparruan esleitua izango dela pentsatu. Horrela, edozein arrazoiengatik, pentsatutako esparruan ez bazaio esleitzen, administrazioak jakingo du hurrengo esparruetarako zer nahi duen berak, eta ez dio lanpostua ofizios emango.

Titulu akademikoa izateagatik soilik joan ahal diren lanpostuei dagozkien eskabideak bakar-bakarrik hartuko dira kontuan esleipen-esparruan espezialitatez joan ahal diren lanposturik ez dagoenean.

2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten pertsonak 1. hizkuntza-eskakizuneko lanpostuak eskatu ahal izango dituzte, IX atalean jasotako kasuetan.

Eskatzeko **era bi** daude:

- eskabide zehatza:** argitaratutako zerrendan lanpostuak esleituta duen ordenaz-zenbakia adierazten denean. **Lanpostu bakarrari** dagokio.
- eskabide generikoa:** lanpostuen ezaugarri definitzaileei buruzko eremu bat edo batzuk betetzen direnean. Posiblea da betetzea eremu bakar bat edo bat baino gehiago aldi berean.

Eremuak hauexek dira: Eskola-barrutia, Udalerria, Ikastetxea, Espezialitatea, Hizkuntza-eskakizuna, Derrigorrezkotasuna, Ibiltaritza, Berezia.

Eskaera honek berekin dakar erabilitako eremuari edo eremuei **dagozkien lanpostu guztiak** eskatzen direla, lanpostuetara sartzeko baldintzak eta eskatzailearen ezaugarriak kontuan hartuta, eta sistema informatikoak garatuko du, gidaliburu honen XI. atalak azaltzen duen moduan.

Kontuan izan behar duzu ikastetxe berean egon daitezkeela **espezialitate edo maila desberdinei dagozkien lanpostuak, baina espezialitate bakarrari dagozkionak**. Lanpostu horiek **espezialitate-kode desberdinak** dituzte. Zure eskaeran espezialitate-kodea erabiliz gero, batzuk edo besteak aukeratuko dituzu. Aitzitik, soilik beste eremu batzuk erabiltzen badituzu, barrutia, udalerria edo ikastetxea esaterako, horiek guztiak esleitu dakizkizuke.

D) Erreferentziako ikastetxea aukeratzeko laukiak

Pertsona batek erreferentziako **ikastetxe bat baino gehiago eduki ahal duenean** [a), b) eta c) esleipen-taldeen kasuetan, edo ikastetxeak aldatzen direnean], eskabideak 2018-2019 ikasturtean zerbitzuak eman dituen ikastetxea izango du aurreaukeratua. Parte-



hartzaileak eskubidea duen edozein ikastetxe aukeratu ahal izango du.

Eskabideak aukeratutako ikastetxeak izango dira. Beraz, eskabideak egin ostean ikastetxea aldatzen bada, sartutako eskabideak ezabatuko dira.

E) Esleipen-esparruei uko egiteko laukiak

Erreferentziako ikastetxean, herrian eta eskola-barrutian esleipenari uko egiteko aukera emango dio eskabideak horretarako baldintzak betetzen dituenari.

XI. ZELAN GARATZEN DIREN ESKAERA GENERIKOAK

Aplikazio informatikoak **eskaera generikoak barne hartzen duten lanpostu-multzoan** garatuko ditu. **Lanpostu guztiak izango dira eskabidearen parte.**

Horretarako kontuan izan beharko ditu eskatzaileak **prozesuan parte hartzen duen aukerak**, IX. atalean ("Lanpostuak lortzeko betekizunak") adierazten den moduan.

Bereziki aipatu nahi da berriro hemen aurreko ataleko C paragrafoan agertzen dena, maila edo espezialitate desberdinetako lanpostuetarako sarbidea ematen duten espezialitateei buruzkoa.

Irizpide horiek kontuan izanda, lanpostuaren ordena-zenbakia ez den **zutabe bati dagokion laukia betetzeak** esan nahi du horren eskuinaldeko zutabe guztiek aipatzen dituzten edozein aukera betetzen duten **lanpostu guztiak eskatzea**, ezaugarri berezietako lanpostuak izan ezik. Zutabe bat baino gehiagotako laukiak betetzen badira, erabilitako zutabeetan adierazitakoak ez diren aukerak ez dira kontuan izango.

Horrela, pertsona batek bilgune bat soilik markatzen duenean, horrek esan nahi du barrutiaren udalerrri guztietako ikastetxe guztietan pertsona horrek espezialitatez lor ditzakeen lanpostu guztiak eskatzen dituztela, hizkuntza-eskakizun guztietakoak, lanaldi mota guztietan, ibiltariak eta ez-ibiltariak, bereziak eta ez-bereziak, ezaugarri bereziko gisa argitaratutako lanpostuak izan ezik.

Aldiz, pertsona baten eskabidea bada bilgune bat, 1. Hizkuntza-eskakizuna, ez-ibiltaria eta ez-berezia, pertsona horrek hauxe eskatzen dabil: barrutiaren udalerrri guztietako ikastetxe guztietan pertsona horrek espezialitatez lor ditzakeen lanpostu guztiak, lanaldi mota guztietan, baina beti ere 1. Hizkuntza-eskakizunekoak ez-ibiltariak eta ez-bereziak badira, (ezaugarri bereziko gisa argitaratutako lanpostuak izan ezik).

Eskaera generikoak barne dituen lanpostuak sailkatzeko 2012ko ekainaren 6ko Aginduak aurretik ezartzen dituen irizpideak erabiliko dira.

Sailkatzeko irizpide orokorrak hauexek dira:

- aurretik ezarritako Lurrealde Historikoa-Barrutia-Udalerrria-Ikastetxea ordenaren arabera, Langileak Kudeatzeko zuzendariak ikasturte hasierako esleipen-prozesura urtero deitzeko ematen duen ebazpenean ezarritakoa.
- ikastetxe bakoitzaren barruan, zehaztutako espezialitate-ordenaren arabera, Langileak Kudeatzeko zuzendariak ikasturte hasierako esleipen-prozesura urtero deitzeko ematen duen ebazpenean ezarritakoa.
- espezialitate bakoitzaren barruan, 2. hizkuntza-eskakizunekoak 1. Hizkuntza-



eskakizunekoak baino lehen.

- hizkuntza-eskakizun bakoitzaren barruan, indarreko derrigorrezkotasunak atzeratuak baino lehen.
- derrigorrezkotasun bakoitzean, ez-ibiltariak ibiltariak baino lehen esleituko dira.
- lanpostu ez-bereziak bereziak baino lehen.
- aurreko ezaugarri guztiak berdinak badira, lanpostuaren ordena-zenbakiaren arabera sailkatuko dira, txikienetatik handienera.

Irizpide orokor hauek dagokion esleipen-esparruan moldatu behar dira. Horrez gain, **kontuan hartu behar da parte-hartzaileek zein lanpostu aukeratu ahal duten, egiaztatuta daukaten hizkuntza-eskakizunaren arabera**. Horrela, 1. Hizkuntza-eskakizuneko lanpostuei dagozkien eskabideak, 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duen pertsona batek egindako eskaera generiko baten garapenetik datozenak, bakar-bakarrik hartuko dira kontuan IX. atalean jasotako kasuetan.

Eskaera generikoen garapenak espezialitatez joan ahal diren lanpostuak soilik sartuko ditu lanpostu-multzoan. Beraz, **ez ditu kontuan hartuko titulu akademikoa izateagatik soilik joan ahal diren lanpostuak**. Lanpostu hauek sartzeko, eskabide zehatza moduan eskatu beharko ditu parte-hartzaileak, baina gogoratu eskabide horiek eraginak izango dituztela bakar-bakarrik espezialitatez joan ahal diren lanposturik ez dagoenean.

Azkenik, kontuan izan **espezialitate bat ingelesez edo frantsesez ematea eskatzen duen lanpostuak** (hirueletasuna) ezaugarri bereziko lanpostu gisa kalifikatuko direla, eta hortaz, eskaera generikoen garapenak ez dituela kontuan izango. Lanpostu horiek sartzeko eskaera zehatza moduan eskatu beharko ditu parte-hartzaileak.

Eskaera-lerro baten ondoriozko lanpostuak deskribatutako irizpideen arabera ordenatuko dira euren artean, eta lanpostu guztiak hurrengo eskaera-lerroari dagokion lanpostuaren edo lanpostuen aurreko ordena-zenbakian jarriko dira.

XII. OFIZIOZKO ESKABIDEAK. ZELAN SORTZEN DIREN NAHITAEZKO ESKAERAK

A) Ofiziozko eskabideak

Prozesuan **nahitaez** parte hartu behar duen pertsona batek **eskabidea aurkezten ez** badu, **ofizioz sortuko zaio**.

B) Zelan sortzen diren nahitaezko eskaerak

Prozesuan **nahitaez** parte hartu behar duen pertsona batek lortu ahal dituen **lanpostu guztiak eskatu ez** baditu, sistema informatikoak gehieneko eskaera-mugaraino osatuko du eskabidea.

Horretarako kontuan izan beharko ditu eskatzaileak **prozesuan parte hartzen duen aukerak**, IX. atalean ("Lanpostuak lortzeko betekizunak") adierazten den moduan.

Nahitaezko eskaerak sortzeko eskaera generikoen garapenerako finkatutako **irizpide berberak** jarraituko dira.



Titulu akademikoa izateagatik soilik joan ahal diren lanpostuetarako eskaerak ez dira ofizioz sortuko erreferentziako ikastetxean, herrian eta barrutian. Aitzitik, eskaera horiek bai sortuko direla lurralde historikoan, espezialitateko lanposturik ez daudenean kontuan hartzeko.

2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten pertsoneri ofizioz 1. hizkuntza-eskakizuneko lanpostuetarako eskaerak sortuko zaizkie dagozkien esparruetan, IX. atalean jasotako kasuen arabera.

Sorkuntza horren ondoriozko lanpostuak deskribatutako irizpideen arabera ordenatuko dira euren artean, eta lanpostuak guztiak borondatezko azken eskaeraren hurrengo ordena-zenbakian jarriko dira.

XIII. ESLEIPENAREN FASEAK

Orain arte ikastetxeko lanpostuetan **finkatzeko fasea** lurralde-ordezkaritzetako langile-atalek prestatu eta argitara ematen zuten. Hemendik aurrera, **esleipen-prozesu informatikoaren beste fase bat izango da**. Beraz, Hezkuntza administrazioak ez du ezer egingo; aitzitik, parte-hartzaileak berak lanpostuak hautatu beharko ditu erreferentziako-ikastetxe esparruaren barruan.

Prozesuak **hainbat fase ditu**, kontuan izan behar diren lehentasunen arabera, hau da, parte-hartze taldeetan banatzea eta espezialitatea izatea, zerbitzua ematen duten ikastetxearekiko pertsonen duten harremana edo esleipen-eremuaren arabera definituak. Hain zuzen ere, hauexek dira segidako fase horiek:

1. fasea: a) taldea, behin betiko destinoa duten ikastetxean, duten espezialitateko lanpostuetarako.
2. fasea: b) taldea, behin betiko destinoa duten ikastetxean, duten espezialitateko lanpostuetarako.
3. fasea: c) taldea, behin betiko destinoa duten ikastetxean, duten espezialitateko lanpostuetarako.
4. fasea: a) taldea, behin betiko destinoa duten ikastetxean, titulazio akademikoari dagozkion lanpostuetarako.
5. fasea: b) taldea, behin betiko destinoa duten ikastetxean, titulazio akademikoari dagozkion lanpostuetarako.
6. fasea: c) taldea, behin betiko destinoa duten ikastetxean, titulazio akademikoari dagozkion lanpostuetarako.
7. fasea: a), b), c) eta d) taldeak, denak batera, erreferentziako ikastetxean, baldin eta behin betiko destinoa duten edo izan zuten ikastetxea ez bada, duten espezialitateko lanpostuetarako.
8. fasea: a), b), c) eta d) taldeak, denak batera, erreferentziako ikastetxean, baldin eta behin betiko destinoa duten edo izan zuten ikastetxea ez bada, titulazio akademikoari dagozkion lanpostuetarako.
9. fasea: e) taldea, erreferentziako ikastetxean, duten espezialitateko lanpostuetarako.



10. fasea: e) taldea, erreferentziako ikastetxean, titulazio akademikoari dagozkien lanpostuetarako.
11. fasea: a), b), c) eta d) taldeak, denak batera, erreferentziako ikastetxea dagoen barrutian, duten espezialitateko lanpostuetarako.
12. fasea: a), b), c) eta d) taldeak, denak batera, erreferentziako ikastetxea dagoen barrutian, titulazio akademikoari dagozkion lanpostuetarako.
13. fasea: a), b), c) eta d) taldeak, denak batera, erreferentziako ikastetxea dagoen lurralde historikoan, duten espezialitateko lanpostuetarako.
14. fasea: a), b), c) eta d) taldeak, denak batera, erreferentziako ikastetxea dagoen lurralde historikoan, titulazio akademikoari dagozkion lanpostuetarako.
15. fasea: f) taldea, erreferentziako ikastetxean, duten espezialitateko lanpostuetarako.
16. fasea: f) taldea, erreferentziako ikastetxean, titulazio akademikoari dagozkien lanpostuetarako.
17. fasea: g) taldea, erreferentziako ikastetxean, duten espezialitateko lanpostuetarako.
18. fasea: g) taldea, erreferentziako ikastetxean, titulazio akademikoari dagozkien lanpostuetarako.
19. fasea: f) taldea, erreferentziako ikastetxea dagoen lurralde historikoan, duten espezialitateko lanpostuetarako.
20. fasea: f) taldea, erreferentziako ikastetxea dagoen lurralde historikoan, titulazio akademikoari dagozkion lanpostuetarako.
21. fasea: Destinoaren zain dauden eta kanpoko lanpostuetako atxikipenetatik datozen pertsonak hautatzea, duten espezialitateko lanpostuetarako, behin betiko azken destinoa izan zuten herrian.
22. fasea: Destinoaren zain dauden eta kanpoko lanpostuetako atxikipenetatik datozen pertsonak hautatzea, titulazio akademikoari dagozkion lanpostuetarako, behin betiko azken destinoa izan zuten herrian.
23. fasea: g) taldea, erreferentziako ikastetxea dagoen lurralde historikoan, duten espezialitateko lanpostuetarako.
24. fasea: g) taldea, erreferentziako ikastetxea dagoen lurralde historikoan, titulazio akademikoari dagozkion lanpostuetarako.

XIV. PARTE-HARTZAILEAK ORDENATZEKO IRIZPIDEAK

Parte-hartzaileak esleipen-esparruari dagozkion irizpideen arabera ordenatuko dira **fase bakoitzean**:

Erreferentziako ikastetxean

Katedradunen kidegoetako pertsonak, antzinako katedradun numerarioen, edo irakasle numerarioen eta irakaskuntza bateratuetako psikologoaren kidegoetarako **berariazko lekualdatze-lehiaketetan lortutako lanpostuan oraindik behin betiko destinoa badute,**



lehentasuna izango dute aukera hori duten gainerako pertsonetik. Bat baino gehiago badaude, hurrengo paragrafoetan adierazitako irizpideak aplikatuko dira.

Gainerako langileen kasuan, **gehituko dira erreferentziako ikastetxean** parte hartzen duen kidegoan karrerako funtzionario gisa **emandako etengabeko zerbitzu-aldia eta** parte hartzen duen **kidegoan karrerako funtzionario gisa emandako zerbitzu-aldia**, eta emaitza handienak emango du eskubiderik hoberena.

Berdinketa badago, **erreferentziako ikastetxean** parte hartzen duen kidegoan karrerako funtzionario gisa **emandako etengabeko zerbitzu-aldi** luzeena izango da kontuan. Berdinketa badago, parte hartzen duen kidegoan dagozkion lanpostuetan, ikastetxe publiko edo publikatuetan, emandako zerbitzu-aldia luzeena izango da kontuan.

Gainerako esparruetan

Eskubide handiena parte hartzen duten **kidegoko karrerako funtzionario gisa emandako zerbitzu-aldi luzeenak** emango du.

Berdinketa badago, parte hartzen duten kidegoko **irakaskuntza-postuetan emandako zerbitzu-aldi luzeena** izango da kontuan, eta berdinketak jarraituz gero, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-postu publikoetan emandako zerbitzu-denbora luzeena.

XV. LANPOSTUAK ZELAN ESLEITUKO DIREN

Fase bakoitzean parte hartzen duten pertsonak aurreko atalean esandakoaren arabera ordenatuko dira. Lanpostuak pertsona haiei esleituko zaizkie.

Pertsona bakoitzari bere **eskabidea osatzen dutenetatik lehenengo lanpostu libre eta baliozkoa** esleituko zaio. Horretarako kontuan hartuko dira bai eskaera zehatzak, bai eskaera generikoen garapenaren eta nahitaezko eskaeren sorkuntzaren ondoriozkoak, aurreko paragrafoetan xedatutakoaren arabera ordenatuta.

XVI. ERAGINAK ETA IZENDATZEA

Esleitutako lanpostuak betetzeari **ezin izango zaio uko egin**.

Behin betiko destinoa duten pertsonak **zerbitzu-eginkizunetarako** izendatuko dira; gainerakoak, berriz, **behin-behineko destinorako**, zer egoera duten ikusitakoan.

Esleitutako lanposturako izendapenak **2019ko irailaren 1ean** izango du eragina, eta 2020ko abuztuaren 31n amaituko da, titularra duten lanpostuetan izan ezik, hura egun hori baino lehenago itzultzen bada; kasu horretan, izendapena lanera itzultzeko bezperan amaituko da.